



Familiantzako GIDA

2021 - 2022

1. AURKIBIDEA

1.-Aurkibidea	1. orrialdea
2.-Agurra	2. orrialdea
3.-Barne antolaketa	3. orrialdea
· Zuzendaritza Taldea	
· Batzorde Pedagogikoa	
· Eskola Kontseilua	
· Irakasleak:	
Mintegiak eta Mintegiburuak	4. orrialdea
Tutoreak	5. orrialdea
Irakasleak	6. orrialdea
4.-DBH: irakasgaiak, orduak irakasgaiko eta promozio irizpideak	9. orrialdea
· DBH eleanitza (frantses proiektua)	11. orrialdea
5.-DBHO (BATX): Irakasgaiak eta orduak irakasgaiko	12. orrialdea
· Batxiler eleanitza eta promozio irizpideak	13. orrialdea
6.-Irakasgaien errekerperazio-sistema (atzeratutako irakasgaiak)	14. orrialdea
7.-Ikasturteko proiektuak	15. orrialdea
· Hizkuntz Normalkuntza Proiektua (HNP) / ELOS proiektua	16. orrialdea
8.-Orientazioa eta aniztasunaren trataera	17. orrialdea
· Tutoretza plangintza	
· Orientazio akademikoa	
· Aniztasunaren trataera	
· Hezkuntza premia bereziak	
· Hizkuntza indartzeko programa	
9.-Jarduera osagarriak	19. orrialdea
10.-Ikastetxearen azpiegiturak eta baliabideak	20. orrialdea
11.-Guraso Elkarte / Kirola eta kultur ekintzak	22. orrialdea
12.-Egutegiak	24. orrialdea
13.-Ikastetxeko helbide eta datuak	27. orrialdea
Ikastetxearekin harremanak bideratzeko prozedura	
14.-Covid-19aren inguruko jarraibide nagusiak	28. orrialdea

2. AGURRA

Beste ikasturte bati hasiera eman diogu eta institutua osatzen dugunon izenean, ongietorria eman nahi diegu ikastetxe honetara etorritako pertsona guztiei eta bereziki estreinako datozenei (ikasleei, gurasoei, irakasleei).

Aurtengo ikasturtea berriro ere berezia izango da bizi dugun COVID-19 pandemiarengatik. Hala ere, ilusio handiarekin hasiera eman nahi diogu eta egoerara moldatu beharko dugu.

Liburuxka hau **2021/2022 ikasturteko** irakas-gidaliburua da.

Gidaliburu honetan, eskuragarri izan behar duzuen informazioa laburbiltzen zaizue: antolakuntza, funtzionamendu arauak, irakaskuntza eskaintza, egutegiak, baliabideak, eskaintzen ditugun zerbitzuak, eta interesgarriak iruditzen zaizkigun beste xehetasun batzuk ere bai.

Zenbait informazio gogorarazteaz aparte, ikastetxean ondorengo alorretan ahalegin berezia egiten dela azpimarratu nahi dugu: inguruko gizartearekin erlazio estua mantentzen saiatzen gara (eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak...), Europako beste herrialdeetako ikastetxe eta ikasleekin harremana mantentzen dugu (eskolen arteko trukaketak, ELOS proiektua, eleaniztasuna...), informazio eta komunikazio teknologi berrietara egokitzen saiatzen gara, euskararen erabilera eta sustapenean indarra jartzen dugu, eta aniztasunari modu egokian erantzuten ahalegintzen gara, besteak beste. Gure helburua, pertsonak bere osotasunean prestatzea da, egun biziaren tokatzen zaien gizartean ondo molda daitezen, horretarako, gaitasunak, sormena, hausnarketa eta jarrera kritikoa lantzen direlarik.

Gure lana, Hezkuntza Sailak argitaratutako dekretuetan oinarritzen da:

- Oinarrizko Hezkuntzarako curriculum Dekretua
236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15)
- Batxilergoko curriculum Dekretua
127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergo curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 2016-09-23)

Eta azkenik, gogoratu nahi dugu **heziketarako egunero eskatzen duen lana ezin dela aurrera eraman guztion laguntzarik gabe**. Horregatik, ikastetxea osatzen dugun kide guztion arteko komunikazioa eta elkarlana egokia izan dadila espero dugu.

Besterik gabe, har ezazue **zuzendaritzaren** agurrik beroena.

ZUZENDARITZA TALDEA

3. BARNE ANTOLAKETA

ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendaria: Jose Javier Fernandez

Ikasketa-buruak: Itziar Amonarriz eta Ainhoa Calvo

Idazkaria: Maite Galdos

Zuzendariordea: Asier Azpiroz

BATZORDE PEDAGOGIKOA

Bertan, zuzendaritza taldea mintegi didaktikoetako buru guztiekin eta orientazio mintegiko buruarekin biltzen da hamabostean behin. Batzorde hau, antolamendu eta koordinazio pedagogikorako batzorde nagusia da.

ESKOLA KONTSEILUA

Ordezkaritza Organo Gorena da. Bertan, eskola-estamentu guztiak daude ordezkatuak:

- Zuzendaritza: zuzendaria, ikasketa-buruak eta idazkaria
- Irakasleen 11 ordezkari
- Heziketa bereziko espezialista bat
- Gurasoen 9 ordezkari
- Ikasleen 9 ordezkari
- Irakasle ez direnen ordezkari bat
- Udaletxeko ordezkari bat

IRAKASLEAK

Ondorengo tauletan dituzue irakasleon zerrendak:

- Estreina, mintegiak eta mintegiburuak
- Bigarrenik talde bakoitzeko tutore zerrenda
- Ondoren, mintegika irakasle guztien izen-deiturak, guraso-orduarekin.

Guraso-ordua: gurasoek irakasleekin harremanetan jarri ahal izateko, ordu horretan deitu dezakezue. Baina dena dela, **lehenik eta behin, zuen seme-alaben tutorearekin** jarri behar zarete harremanetan; tutorea da guraso eta ikastetxearen arteko bitartekari zuzena.

ANTIGUA - LUBERRI BHI

2021/2022 IKASTURTEKO MINTEGIAK ETA MINTEGIBURUAK

IZENA	MINTEGIBURUA
Biologia eta Geologia	AGURTZANE URANGA
Ekonomia	IBONE ETXEBERRIA
Euskal Hizkuntza eta Literatura	AMAIA BONETA
Filosofia	JOSE MARI BALERDI
Fisika eta Kimika	MARILEN SOLA
Frantsesa	GUILLERMO GARCIA
Gaztelania eta Literatura	BEATRIZ GALDOS
Geografia eta Historia	IDOIA AZANZA
Gorputz-Hezkuntza	ANDONI MARKIEGI
Informatika	ALAIN URIZAR
Ingelesa	PILI IBAÑEZ
Marrazketa	MIKEL SÁIZ
Matematika	JUAN LASARTE
Musika	INMA DÍAZ
Orientabidea	MARIJE SANTAMARÍA
Teknologia Orokorra	JOSEBA EZEIZA

ANTIGUA-LUBERRI BHI 2021/2022 IKASTURTEA.

Mailak	Taldeak	Tutoreak	
DBH	1.A	Miren Balerdi	
	1.B	Iban Burgaña	
	1.C	Lander Sarasola	
	1.D	Olatz Erentxun	
	1.E	MJ. Anguera	
	1.F	Arantxa Loinaz	
	2.A	Susana Beloki	
	2.B	Beatriz Pagoaga	
	2.C	Idoia Urretabizkaia	
	2.D	Josune Barriola	
	2.E	Nerea Foronda	
	2.F	Ana Asensio	
	2.G	Eduarne Toscano	
	3.A	Xabier Alberdi	
	3.B	Irati Urkiola	
	3.C	Miren Garin	
	3.D	Juankar Montero	
	3.E	Belen Jauregi	
	3.G	Itziar Ferran	
	3.H	Aritz Mendizabal	
	3.F (AC)	M.J. Marquet / Miren De Mateo	
	4.A	Marisa Arrubarrena	
	4.B	Paz Herrero	
	4.C	Beatriz Odriozola	
	4.D	Lazaro Treviño	
	4.E (AC)	Miren Martin / Lur Gallastegi	
4.F	Enara Elustondo		
ZIG		Karmele García / Libe Lafuente	
DBHO	B A T X I L E R R A	1.A	Sonia Bernabé
		1.B	Jon Azpiroz
		1.C	Rakel Arraiza
		1.D	Vanesa Alonso
		2.A	Rebeka Gomez
		2.B	M.J. Etxeberria
		2.C	Kattalin Kasko
		2.D	Blanca Fernández

21-22 IKASTURTEKO IRAKASLEAK

	IRAKASLEA	KARGUA	Guraso Ordua
BIOLOGIA ETA GEOLOGIA			
	Uranga, Agurtzane	MINTEGIBURUA	Astelehena 11:05-12:00
	Azpiroz, Amaia	BIDELAGUNA (PROA)	Astelehena 10:10-11:05
	Herrero, Paz	DBH4B tutore	Astelehena 10:10-11:05
	Arizaga, Beatriz		Astelehena 11:05-12:00
	Gonzalez, Maria		Astearte 11:05-12:00
	Iraola, Maider		Astelehena 11:05-12:00
	Argoitia, Naiara		Astearte 8:55-9:50
EKONOMIA			
	Etxeberria, Ibone	MINTEGIBURUA	Astelehena 9:50-10:45
	Iriarte, Jon		Ostirala 9:50-10:45
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA			
	Boneta, Amaia	MINTEGIBURUA	Astelehena 10:10-11:05
	Azpiroz, Jon	BATX1B tutore	Asteazkena 10:50-11:40
	Egaña, Jone	HNB Koordinatzailea	Osteguna 11:05-12:05
	Gabilondo, Xabier		Astearte 9:50-10:45
	García, Axun		Osteguna 10:10-11:05
	Kortajarena, Marijo		Astelehena 11:05-12:00
	Kasko, Kattalin	BATX2C tutore	Ostirala 8:55-9:50
	Urkiola, Irati	DBH3B tutore	Asteazkena 11:40-12:30
	Arruabarrena, Marisa	DBH4A tutore + HIPI	Astearte 12:00-12:55
	Benitez, Ibon		Osteguna 11:05-12:00
	Arruti, Enara		Astelehena 11:05-12:00
FILOSOFIA			
	Balardi, Jose Mari	MINTEGIBURUA	Osteguna 08:55-09:50
	Montero, Juan Carlos	DBH3D tutore	Ostirala 8:55-9:50
	Arraiza, Rakel	BATX1C tutore	Asteazkena 11:05-12:00
	Erkizia, Aitor		Asteazkena 12:00-12:50
FISIKA ETA KIMIKA			
	Sola, Marilen	MINTEGIBURUA + Agenda 30	Asteazkena 8:50-9:40
	Lasarte, Eurne		Osteguna 8:55-9:50
	Retegi, Maite	STEAM Proiektua	Astearte 12:00-12:55
	Amonarriz, Itziar	IKASKETABURUA	Astelehena 11:05-12:00
	Barriola, M. Josune	DBH2D tutore	Astelehena 10:10-11:05
	Igarritz, Ana M.		Asteazkena 10:50-11:40
	Guevara, Isabel		Asteazkena 12:50-13:40
FRANTSESA			
	Garcia, Guillermo	MINTEGIBURUA	Osteguna: 10:10-11:05
	Egilegor, Miren		Ostirala 8:55-9:50
GAZTELANIA ETA LITERATURA / LATINA			
	Galdos, Beatriz	MINTEGIBURUA	Osteguna 10:10-11:05
	Anguera, M ^a Jose	DBH1E tutore	Astelehena 12:20-13:15
	Calvo, Ainhoa	IKASKETABURUA	Astearte 8:55-9:50
	Etxeberria, Mari Jose	BATX2B tutore	Astearte 11:05-12:00
	Gil, Mireia		Osteguna 8:00-8:55
	Alonso, Vanesa	BATX1D tutore	Asteazkena 8:50-9:40
	Gomez, Rebeka	BATX2A tutore	Astelehena 11:05-12:00
	Fernandez, Blanca	BATX2D tutore	Asteazkena 12:50-13:40
	Toscano, Eurne	DBH2G tutore	Astearte 10:10-11:05

21-22 IKASTURTEKO IRAKASLEAK

	IRAKASLEA	KARGUA	Guraso Ordua
	Ormazabal, Maialen		Osteguna 11:05-12:00
GEOGRAFIA-HISTORIA			
	Azanza, Idoia	MINTEGIBURUA	Astelehena 11:05-12:00
	Alberdi, Xabier	DBH3A tutore + ELOS	Ostirala 8:55-9:50
	Beloki, Susana	DBH2A tutore	Osteguna 8:55-9:50
	Fernández, Jose Javier	ZUZENDARIA	Astelehena 11:05-12:00
	Garikano Anabel		Astelehena 11:05-12:00
	Urkia, Susana		Astelehena 09:50-10:45
	Balardi, Miren	DBH1A tutore	Astearte 8:55-9:50
	Treviño, Lázaro	DBH4D tutore	Astelehena 10:10-11:05
	Peñagarikano, Leire		Astelehena 8:55-9:50
	Nestar, Itziar		Osteguna 12:20-13:15
GORPUTZ-HEZKUNTZA			
	Markiegi, Andoni	MINTEGIBURUA / PREBENTZIOA	Astelehena 09:50-10:45
	Azpiroz, Asier	ZUZENDARIORDEA	Asteazkena 8:50-9:40
	Ferran, Itziar	DBH3G tutore	Osteguna 11:05-12:00
	Burgaña, Iban	DBH1B tutore	Osteguna 12:20-13:15
	Munduate, Unai	JANGELA	Astearte 12:20-13:15
	Aizpuru, Joseba		Astearte 9:50-10:45
INFORMATIKA			
	Urizar, Alain	MINTEGIBURUA / IKT Arduraduna	Ostirala 9:50-10:45
	Larrea, Iñaki		Astelehena 8:55-9:50
	Goikoetxea, Igor		Asteazkena 8:50-9:40
INGELESA			
	Ibañez, Pili	MINTEGIBURUA	Ostirala 12:00-12:55
	Corcuera, Lorea		Astearte 8:55-9:50
	Garin, Miren	DBH3C tutore	Astearte 8:55-9:50
	Mayo, Maite		Astelehena 11:05-12:00
	Odriozola, Beatriz	DBH4C tutore	Astearte 12:20-13:15
	Prieto, Mikel		Astelehena 8:55-9:50
	Guesalaga, Naiara		Ostirala 10:10-11:05
	Zubizarreta, Edurne		Ostirala 10:10-11:05
	Loinaz, Miren		Osteguna 10:50-11:40
	Perez, Melissa		Osteguna 8:55-9:50
MARRAZKETA			
	Sáiz, Mikel	MINTEGIBURUA	Astearte 12:00-12:55
	Pagoaga, Beatriz	DBH2B tutore	Osteguna 9:50-10:45
	Foronda, Nerea	DBH2E tutore	Asteazkena 8:50-9:40
	Laskibar, Olatz		Ostirala 11:05-12:00
	Laskibar, Julen		Ostirala 9:50-10:45
MATEMATIKA			
	Lasarte, Juan	MINTEGIBURUA	Astearte 11:05-12:00
	Bernabe, Sonia	BATX1A tutore	Asteazkena 8:50-9:40
	Elustondo, Enara	DBH4F tutore	Ostirala 9:50-10:45
	Galdos, Maite	IDAZKARIA	Osteguna 09:50-10:45
	García, Lourdes		Asteazkena 8:50-9:50
	Loinaz, Arantxa	DBH1F tutore	Astearte 10:10-11:05
	Urretabizkaia, Idoia	DBH2C tutore	Osteguna 11:05-12:00
	Asensio, Ana	DBH2F tutore	Ostirala 8:55-9:50

21-22 IKASTURTEKO IRAKASLEAK

	IRAKASLEA	KARGUA	Guraso Ordua
	Erentxun, Olatz	DBH1D tutore	Osteguna 11:05-12:00
	Sarasola, Lander	DBH1C tutore	Asteartea 10:10-11:05
MUSIKA			
	Diaz, Inma	MINTEGIBURUA	Osteguna 10:10-11:05
TEKNOLOGIA			
	Ezeiza, Joseba	MINTEGIBURUA	Astelehena 11:05-12:00
	Avila, Gontzal		Astelehena 11:05-12:00
	Jauregi, Belen	DBH3E tutore	Asteazkena 9:40-10:50
	Mendizabal, Aritz	DBH3H tutore	Astelehena 8:55-9:50
ORIENTAZIOA			
	Santamaría, Maria Jesús	MINTEGIBURUA / ORIENTATZAILEA	Ostirala 8:55-9:50
	Ezenarro, Javier	ORIENTATZAILEA	Osteguna 8:55-9:50
	García, Karmele	ZIG PT - TUTOREA	Asteazkena 10:50-11:40
	Crespo, Jaione	ZIG PT	Asteazkena 12:50-13:40
	Marañon, María Teresa	ZIG OSASUN ARLOA	Asteartea 9:50-10:45
	Lafuente, Libe	TUTOREA ZIG PT + PT	Asteazkena 12:50-13:40
	Osinalde, Jasone	ZIG GIZARTE ZERBITZUAK	Astelehena 12:00-12:55
	De Mateo, Miren	TUTOREA DBH3F AC letren alorra	Asteartea 9:50-10:45
	Marquet, Mari Jose	TUTOREA DBH3F AC zientzien alorra	Osteguna 12:00-12:55
	Martin, Miren	TUTOREA AC - DBH4E zientziern alorra	Asteartea 9:50-10:45
	Gallastegi, Lur	TUTOREA AC - DBH4E letren alorra	Asteartea 9:50-10:45
	Díaz, Maite	PT	Asteazkena 9:40-10:30
	Montero, M ^a Teresa	PT	Ostirala 11:05-12:00
	Agirretxe, Gurutze	HEZITZAILEA	
	Goya, Marta	HEZITZAILEA	
	Zubeldia, Nora	HEZITZAILEA	
ERLIJIOA			
	Alvarez, Alicia		Asteazkena 10:50-11:40

4. DBH: IKASGAIK, ORDU BANAKETA, PROMOZIO IRIZPIDEA

	1. MAILA	2. MAILA
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA	4	4
GAZTELERA, HIZKUNTZA ETA LIT.	3	4
ATZERRIKO 1. HIZKUNTZA (INGELESA)	4	3
MATEMATIKA	4	4
BIOLOGIA-GEOLOGIA	3	-----
FISIKA-KIMIKA	-----	3
GEOGRAFIA/HISTORIA	3	3
OINARRIZKO TEKNOLOGIA	2	2
PLASTIKA ETA IKUS HEZKUNTZA	-----	2
GORPUTZ HEZIKETA	2	2
MUSIKA	2	-----
DBH1eko HAUTAZKO TAILERRAK: Frantsesa, Euskara Indartze Tailerra, Eskulangintza, Informatika eta Ikus-entzunezko komunikazioa.	2	-----
BALORE ETIKOAK EDO ERLIJIOA	1	1
DBH2ko HAUTAZKO TAILERRAK: Frantsesa, Informatika, Ikerketa Zientifikora Hurbilketa, Ikus-entzunezko komunikazioa, Asmakizun Tailerra eta Eskulanak.	-----	2
TUTORETZA	1	1
GUZTIRA	31	31

	3. MAILA	4. MAILA
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA	3	3
GAZTELERA, HIZKUNTZA ETA LIT.	3	4
ATZERRIKO 1. HIZKUNTZA (INGELESA)	3	3
MATEMATIKA	3	4
BIOLOGIA-GEOLOGIA	3	-----
FISIKA-KIMIKA	3	-----
GEOGRAFIA/HISTORIA	3	3
OINARRIZKO TEKNOLOGIA	2	-----
PLASTIKA /PLASTIKA FRANTSESEZ	1	-----
GORPUTZ HEZIKETA	2	2
MUSIKA/MUSIKA FRANTSESEZ	1	-----
BALORE ETIKOAK/BALORE ETIKOAK FRANTSESEZ ERLIJIOA	1	1
DBH 3ko HAUTAZKO TAILERRAK: Artisautza, Frantses Proiektua, Informatika, Asmakizun Tailerra eta Ikerketa Zientifikora Hurbilketa.	2 (tailer bat)	-----
DBH4ko AUKERAKOAK: Latina, Frantses Proiektua, Marrazketa, Plastika, Biologia-Geologia, Fisika-Kimika, Filosofia, Informatika, Kultur Zientifikoa eta Ekonomia	-----	9 (hiru ikasgai)
TUTORETZA	1	1
GUZTIRA	31	30

PROMOZIO-IRIZPIDEAK DBHn

- a. **2015eko Dekretuaren arabera, dena gaindituz gero, hurrengo ikasturtera automatikoki igaroko da.**
- b. **Gainditu gabeko irakasgaiak bi baino gehiago badira, ikasleak kurtsoa errepikatu beharko du, oraingo indarrean dagoen dekretuaren arabera.** Horrek esan nahi du, gainditu gabeko irakasgaiak **bi badira**, maila batetik bestera igaro ahal izateko, irakasgai horiek ezin izango dira ondoko bikote hauek izan: *Gazteleria eta Literatura + Matematika* edo *Euskara eta Literatura + Matematika*. Hala ere, legeak ikastetxe bakoitzari eskumena ematen dio kasu hauetan salbuespenak ezartzeko, eta ondorioz, klaustroaren erabakiz, irakasgai-bikote hauetako bat izanez gero gainditu gabekoa, bikoteko bi irakasgai horietako kalifikazioek, EA, GU-1, GU-2 baino altuagoa izan beharko dute kurtsoz igaro ahal izateko (hau da, gutxienez 3). Gainontzeko ikasgaietan notaren irizpide hau ez da erabakikorra izango.
- DBHko edozein kurtсотan gainditu gabeko irakasgai guztiak hartuko dira kontuan erabaki hori hartzeko garaian (igarotako edo errepikatu).
- DBHko maila bakoitzean izen bera duten irakasgaiak, irakasgai desberdinak dira (adibidez, DBH1 eta DBH2 ikasturteetan, ingelesa gainditu gabe = 2 gutxiegi, 2 irakasgai baitira).
- c. Ikasturte bakoitzaren bukaeran irakasleek erabakiko dute ikasleak promozionatzen duen ala ez.
- d. Kurtso bakoitza behin errepikatu ahal izango da eta gehienez bi aldiz DBH osoan.
- e. **DBH 4 amaitutakoan, zer?**
- DBH4ko irakasgai guztiak gaindituz gero, ikasleak Bigarren Hezkuntzako Agiria jasoko du.
- Irakasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek titulua lortu ahal izango dute, baldin eta irakasle-taldeak uste badu ikasle horiek oinarritzko gaitasunak eta etapako helburuak lortuak dituztela. Edozein kasutan (irakasgai bakarra balitz ere) ikaslearen bukaerako kalifikazioa EA, GU-1, GU-2 balitz titulurik ez luke bereganatuko. Gainditu gabe geratu diren irakasgai horiek ezin izango dira inolaz ere ondoko bikote hauek izan: *Gazteleria eta Literatura + Matematika* edo *Euskara eta Literatura + Matematika*.
- f. **Baina kontutan hartu behar da azken bi ikasturteetan (2019-20 eta 2020-21) Hezkuntza Departamentuak hartu dituen promozio irizpideak: Gainditu gabeko irakasgaiak egonez gero, hauen kopurua eta hauek edozein ikasgai mota direla ere, ikasleak soilik errepikatu beharko du beti eta irakasle taldeak erabaki hori hartzen badu.**
- g. **Horregatik, ikasturte honetan (2021-22) ere irizpide berrien zai geratuko gara promozio irizpideak ezarri eta jarraitzerakoan, eta jakiten ditugunean hauen berri emango dugu.**

DBH ELEANITZA (FRANTSESEZ)

FRANTSES PROIEKTUA

Zertan datza? Proiektuko ikasleek DBH3 eta DBH4n, zenbait ikasgai frantsesez ikasiko dituzte.

DBH1 eta DBH2n, frantses tailerra aukeratu dezakete, eta pixkanaka-pixkanaka, frantsesa ikasten hasi.

DBH3 eta DBH4n frantsesa ikasten jarraitzeko aukera dute, baina horretarako orain, bi modu dituzte: erritmo lasai horrekin jarraitu, **edo frantses proiektuan sartu** eta indar gehiago jarriz, erritmo biziago batean, frantsesari heldu.

Erritmo biziago hori aukeratuz gero, **Frantses Proiektuan** sartzeko eskaera egin behar du, eta beraz, bereziki ganoraz lan egiteko konpromezua hartuko du ikasleak (aurkezpenak frantsesez ikaskideen aurrean, erritmo biziago bat, azterketak, ...); gelako hizkuntza, frantsesa izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren hizkuntzekin zailtasunak dituzten ikasleak eleaniztasun esperientzia honetan sartzea ez da gomendatzen.

Frantseseko proiektuan eskaintzen diren gaiak ondoko hauek dira:

- **DBH 3:**
Frantsesa (2 ordu), Plastika (ordu 1), Musika (ordu 1), Balore etikoak (ordu 1).
- **DBH 4:**
Frantsesa (3 ordu), Balore etikoak (ordu 1).

Esperientzia honen balorazioa oso positiboa izan da gaurdaino, eta ildo beretik jarraitu nahi dugu.

Frantses pixka bat dakiten gurasoei beren seme-alabekin noizean behin frantsesez egitea aholkatzen zaie, baita seme-alaben oportetako lanak gainbegiratzea ere.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://sites.google.com/site/luberrifrantsesproiektua>

5. DBHO (BATXILERGOA): IRAKASGAIK/ORDU BANAKETA

IKASGAI KOMUNAK			
1. MAILA	Ord.	2. MAILA	Ord.
Gaztelera	3	Gaztelera	3
Euskara	3	Euskara	3
Atzerriko hizkuntza (ingelesa)	3	Atzerriko hizkuntza (ingelesa)	3
Filosofía I	3	Espainiako Historia	4
Gorputz- heziketa	2	Modalitateko 3 irakasgai	12
Modalitateko 3 irakasgai	12	2 irakasgai espezifikoak	8
2 irakasgai espezifikoak	8		
GUZTIRA	34	GUZTIRA	33

MODALITATEKO IKASGAIK			
ZIENTZIEN BATXILERGOA			
1. MAILA	Orduak	2. MAILA	Orduak
Matematika I	4	Matematika II	4
Fisika-Kimika	4	Fisika	4
Biologia-Geologia	4	Kimika	4
Marrazketa tekniko I	4	Biologia	4
		Marrazketa tekniko II	4
IKASGAI ESPEZIFIKOAK	4	IKASGAI ESPEZIFIKOAK	4
Kultura Zientifikoa, Industria-Teknologia I, IKT I, Marrazketa Artistikoa I, Ekonomia eta Ikus-entzunezko Kultura (euskaraz eta ingelesez-eleanitza).		Kimika, Psikologia, IKT II, Marrazketa Artistikoa II, Filosofiaren Historia, Enpresaren Ekonomia eta Frantsesa II.	
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA			
1. MAILA	Orduak	2. MAILA	Orduak
Gizarte Zientzietarako Matematika I edo Latina I	4	Gizarte Zientzietarako Matematika II edo Latina II	4
Ekonomia	4	Artearen Historia	4
Mundu Garaikidearen Historia	4	Geografia	4
Literatura Unibertsala	4	Enpresaren Ekonomia	4
Greziera	4	Filosofiaren Historia	4
IKASGAI ESPEZIFIKOAK	4	IKASGAI ESPEZIFIKOAK	4
IKT I, Marrazketa Artistikoa I, Ekonomia, Literatura Unibertsala, Latina I eta Ikus-entzunezko Kultura (euskaraz eta ingelesez-eleanitza).		Artearen Historia, Psikologia, Administrazioa eta Kudeaketa Prozesuak, IKT II, Geografia, Marrazketa Artistikoa II, Enpresaren Ekonomia eta Frantsesa II.	

BATXILERGO ELEANITZA (INGELESEZ)

Gipuzkoako sare publikoan aitzindari izan den proiektu honen xedea, Batxilerreko helburu orokorrak lortzeaz gain, Euskaran, Gaztelanian eta **Ingelesean ere**, ahoz eta idatzizko trebetasuna lortzea da. Helburu hau erdietsi ahal izateko ikaslearen curriculumaren orduak hiru hizkuntzen artean banatu dira, Batxilerrak eskaintzen dituen ibilbide guztiak irekita utzita eta, aldi berean, irakasgaien %22 ingelesez emateko aukera kontuan hartuta.

BATXILERGO ELEANITZA 1. MAILA

INGELESA. Eleanitzeko ingeles ikasgaiko maila, altuagoa da.

IKUS-ENTZUNEN KULTURA ingelesez ikasiko dute (ikasgai hau espezifikoa da).

BATXILERGO ELEANITZA 2. MAILA

INGELESA. Eleanitzeko ingeles ikasgaiko maila, altuagoa da.

HISTORIA ingelesez ikasiko dute.

BATXILERGOA: PROMOZIO-IRIZPIDEAK

- o **2015eko Dekretuaren arabera, dena gaindituz** gero, hurrengo ikasturtera automatikoki igaroko da.
- o **Batxilergoko 1. mailan gainditu gabeko irakasgaiak bi baino gehiago** badira, ikasleak beste urtebetez egon beharko du kurtso berean; **errepikatu** egin beharko du.
- o **Batxilergoko 2. maila** amaitzean ikasgai batzuetan ebaluazio negatiboa duten ikasleek ikasgai horietan matrikula daitezke, gainditutako ikasgaiak berriro egiteko premiarik gabe, edo kurtso osoa errepikatzea aukera dezakete.
- o **Baina azken bi ikasturte hauetan (2019-20 eta 2020-21) Batxilergoko promozio irizpideak aldatu egin dira eta 2. maila amaitzean batxilergoko ikasgai batean ebaluazio negatiboa badu ez ohiko deialdian Batxilergoko titulua lortu ahal izango du** beti eta ikaslea ahalegindu bada ikasgaia gainditzen, klaseetara etorri izan bada eta azterketetara aurkeztu bada, bakarrik orduan eta batz besteko nota ikasgai guztien artean 5 baina gehiagokoa bada eta klase ematen dioten irakasleen oniritziarekin, ikasleak Batxilergoko titulua eskuratu ahal izango du beti eta ez ohiko deialdian, inoiz ohikoan.
- o **Horregatik, ikasturte honetan (2021-22) ere irizpide berrien zai geratuko gara promozio irizpideak ezarri eta jarraitzerakoan, eta jakiten ditugunean hauen berri emango dugu.**

6. IRAKASGAIEN ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ikasgai bakoitzeko ebaluazio irizpideak, ikasgaiko programazioan daude jasota, baita errekeratze modua ere, gainditu ez direnean.

Ebaluazio-irizpide eta errekeratze moduaren berri ikasleari idatziz emango zaio ikasturtearen hasieran, ikasturtean jorratuko diren edukiei buruzko informazioarekin batera.

IKASGAI PENDIENTEEN TRATAERA

Aurreko ikasturteetan gainditu gabeko irakasgaiak gaintzeko deialdiak hauek dira:

MINTEGIAK	Iraila	Ohikoa (maiatza/ekaina)	Ezohikoa (ekaina)
Biologia eta Geologia	X	X	X
Ekonomia	X	X	X
Euskal Hizkuntza eta Literatura	X	X	X
Filosofia	X	X	X
Fisika eta Kimika	X	X	X
Frantsesa	X	X	X
Gaztelania eta Literatura	X	X	X
Geografia eta Historia	X	X	X
Gorputz-Hezkuntza	X	X	X
Informatika	X	X	X
Ingelesa	X	X	X
Latina	X	X	X
Marraketa	X	X	X
Matematika	X	X	X
Musika	X	X	X
Orientazioa (Aniztasun Curricularra)		X	X
Teknologia Orokorra	X	X	X

- ✓ **Irailaren 20tik 24ra** izango dute aurreko ikasturteko ikasgaia gaintzeko lehenengo aukera.
- ✓ **Ohiko deialdia.**
- ✓ **Ezohiko deialdia.**

Irailako deialdian ikasgaia gaintu ezean, dagokion ikasgaiko arduradunak jakinaraziko dio ikasleari hurrengo deialdien nondik norakoa, mintegian finkatutako moduan.

DBHko ikasgaien kasuan:

Aurreko ikasturtean gaintu gabeko irakasgaiak errekeratze, **Hezkuntza Indartzeko Banakako Plana (HIBP) ezarriko zaio** (plan individual de refuerzo educativo: PIRE). Plan horrek honako hauek biltzen ditu: indartu beharreko oinarriko edukiak, metodologia, material lagungarriak eta ebaluazioa. Guztiaren informazioa gutun baten bidez jasoko duzue.

Batxilerreko 2.mailan, aurreko ikasturteetako irakasgaiak gaintzeko ohiko eta ezohiko deialdiak, Aste Santuko oporrak baino lehenago egingo dira.

7. IKASTURTEKO PROIEKTUAK

Izenburua	<i>Arduraduna parte-hartzaileak mintegia</i>	Laguntza	Erakundea
ELOS sarea ⁽¹⁾	Xabier Alberdi Historia mintegia	Diru-laguntza Ordu-kredituak	Hezkuntza Saila
Agenda 30 ⁽²⁾	Marilen Sola Fisika-Kimika mintegia	Diru-laguntza Ordu-kredituak	Hezkuntza Saila
STEAM ⁽³⁾	Maite Retegi Fisika-Kimika mintegia	Diru-laguntza Ordu-kredituak	Hezkuntza Saila
HNP ⁽⁴⁾	Jone Egaña Amaia Boneta Jon Azpiroz Euskara mintegia	Diru-laguntza	Hezkuntza Saila
Gu ere bai ⁽⁵⁾	Jasone Osinalde Tere Maraño Karmele Garcia Libe Lafuente ZIG	Diru-laguntza	Donostiako Udala

(1) Antzeko mailako Europako beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko.

(2) Ikastetxeetan iraunkortasunerako hezkuntzako berariazko proiektuei ekiteko.

(3) STEAM ekimenean Zientziei praktiketatik eta jokoetatik heltzen zaie.

(4) Ikasgelaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilera pizteko.(HNB)

(5) ZIG gelako ikasleen autonomia pertsonala eta kirola sustatzeko.

HIZKUNTZ NORMALKUNTZA PROIEKTUA

Hezkuntza Sailak ikastetxeetan euskara sustatzeko sortu zuen programa da.

Euskararen erabilera eta kalitatea bermatzea du helburu nagusi ikastetxeko esparru guztietan. Horretaz gain, hizkuntzarekiko atxikimendu baikorra bultzatzen saiatzen gara.

Euskara batzordea hainbat ikasle eta irakaslek osatzen dugu eta hilean behin elkartzen gara euskararen erabileraren inguruan ekintzak antolatuz.

Ikasleen artean euskararen erabilera modu ludikoan sustatzeko ekintzak mugatu egin dira COVID-19 egoera dela eta. Hala ere zenbait ekintza bultzatuko dira:

- Euskaraldian parte hartuko dugu eta ikasleek zenbait jarduera burutuko dituzte motibatu eta girotzeko:
 1. Ikastetxeko web orrian zenbait bideo zintzilikatzea.
 2. Aste horietan zehar euskarazko musika jartzea.
 3. Eskulangintza tailerrean txapen diseinua sortzea.
- Aurreko urtetan egiten diren: Firin-faran eguna, Mintzodromoa, Kantu Bazkaria, Euskal idazleen hitzaldiak etab. bertan behera geratuko dira, baina beste jarduera batzuegatik ordezkatuak izango dira eta euskara indartzen jarraitzeko programa berezia bultzatuko da HNBko taldetik eta Zuzendaritzaren eskutik.

ELOS PROIEKTUA: Europari Begira

Europako zenbait bigarren hezkuntzako ikastetxez osatutako europar sare bat da. ELOS sareak bigarren hezkuntzako ikasleak (12-19 urtekoak) Europa eta munduko herritar izan daitezen prestatu nahi ditu. Euskal Herrian, Agurain, Azpeitia, Bilbo, Gasteiz eta Donostiako institutuak gaude.

ELOS ETA EUROPAR GAITASUNAK

Ikasle-irakasleen **europar gaitasunak** definituko dira ELOS Europako ikastetxeetan eta baita European Learning Environmenteko **indikadoreak** ere.

ELOS SAREAREN HELBURUAK

- Gaiari buruzko informazioa trukitzea zentroen eta erakundeen artean.
- Europako adierazle komunak garatzea European Learning Environment eremuan.
- Ikasle-irakasleen gaitasunak deskribatzea, eta ikastetxeetan argitzea europar herritarraren esanahia eta herritartasun hori lortzeko modua.
- Curriculumen garapenari buruzko eztabaida baterako prozedurak erabiltzea.
- ELOS ikastetxeetan finkatzeko jarraibideak, materialak eta tresnak garatzea.
- Jardun egokiak saretik kanpo dauden ikastetxeen esku jartzea.
- Europako lankidetzaren emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Europa eskoletan ezartzea, Europako programak definitzen lagunduz.
- Gazteak motibatzea zientzia eta teknologiako ikasketa europarrak aukera ditzaten.



STEAM PROIEKTUA

STEAM proiektuan ikasleek modu enpirikoan ikasiko dute, erabakiak hartzeko orduan ebidentzian oinarritutako arrazoibidea erabiliko dute, konfiantza eta ezagutzak hartuko dituzte XXI. mendeko trebetasunak garatu ahal izateko... Hala, ikasleek ariketak eta irakasgaiak egiteko orduan baliabideak handituko dituzte, eta sortzaileagoak izango dira planteatutako problemak ebazteko orduan.

Guretzat, abantaila nagusietako bat da ikasleek eginez ikasten dutela, nahiz eta beharrezkoa den zati praktikoa zati teorikoarekin konbinatzea, eztabaidekin, ikasiz, ikertuz... Aplikazio teknologiko berriek aukera paregabekoa ematen digute aipatutakoa lortu ahal izateko (AR eta VR errealitate areagotua eta birtuala) eta honekin batera metodologia desberdinak ere aplikatu ditzakegu (gamifikazioa, Design Thinking, ABP, Flipped Classroom...)

Horretarako ikasleek STEAM jarduera desberdinak egingo dituzte Fisika-Kimika eta Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza curriculumarekin lotuta eta jarduera bakoitzari Emakume Zientzialari baten biografia lotuko zaio Hizkuntzetako ikasgaietan landuta. Modu horretan, ikasleek barneratuko dute noraino izan dute garrantzia emakumeak zientzia eta gizartearen garapena eta aurrerapenetan.

8. ORIENTAZIOA ETA ANIZTASUNAREN TRATAERA



Lan-ardatzak:

1.- TUTORETZA PLANA

Plangintza honek hiru gaitasun jorratzen ditu: Ikasten ikasteko gaitasuna, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna eta gizarte eta hiritar-gaitasuna. Gela bakoitzak bere tutorea dauka eta orientatzaileekin elkartzen da adostutako tutoretza plana aurrera eraman ahal izateko.

2.- ORIENTAZIO AKADEMIKOA

Orientazio pertsonala, eskolarra eta bokazionala maila guztietan landu arren, bokazionala DBH 3, DBH 4 eta BATXILERREAN 1. eta 2. mailetan gauzatzen da. Tutoretza saioetan baloreak eta interes profesionalak lantzen dira. Gero, gurasoekin bilera orokorrak egiten dira, eta, azkenik, banakako elkarrizketak ikasleekin.

3.- ANIZTASUNAREN TRATAERA

Bigarren Hezkuntza (DBH) ezarri zenetik bere erronketariko bat ikasleen aniztasunari erantzutea izan da. Aniztasunak arreta berezia eskatzen du, desberdintasunak errespetatuz eta diferentziak orekatuz.

Ikastetxeak honako bide hauek jarraitzen ditu inklusibitate printzipioari eutsiz:

A.- Hezkuntza Indartze Neurriak (Pedagogia Terapeutikako irakasleak).

1. eta 2. mailako ikasle batzuen beharrei erantzun ahal izateko, ebaluazio pedagogiko baten ondoren, ikastetxeak oinarrizko arloetako errefortzua antolatzen du: Matematika, Euskara eta Gaztelania non oinarrizko curriculum arrunta jarraitzen da ikasleen ikaste erritmoari egokitzuz.

B.- Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektua (HBSP).

Ikasketetan erritmo egokitua behar duten ikasleentzat, behin errepikatu ondoren, Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektua (H.B.S.P) bideratu dugu. Oinarrizko ezagutzak sakontzea eta finkatzea lehenengo zikloko helburu eta edukiak gainditu ahal izateko eta lanarekiko trebetasun eta jarrera egokiak sustatzea ditu helburu.

C.- Hezkuntza Premia Bereziak.

LAGUNTZA GELA.- Pedagogia Terapeutikako irakasleek hezkuntza premia bereziko ikasleekin (12-16 urte bitarteko ikasleak diagnosis eta banakako programa dutenak) lan egiten dute. Gelako tutoreekin batera ikasleen jarraipena

egiten dute, eta norbanako lan plangintzak prestatzen dituzte arloetako irakasleekin. HLBPk dituen ikaslearen garapen pertsonalaren zein akademikoaren jarraipen zuzena egiten dute, bakarka zein talde txikietan.

ZIG GELA.- 16-20 urte bitarteko hezkuntza premia bereziko ikasleentzat Zereginen Ikaskuntza (ZIG) bi gela ditugu. Gela hauen helburu nagusietatik abiatuz (normalizazioa, integrazioa, lan mundurako prestakuntza aktiboa) ikasle bakoitzarentzat Igarobiderako Norbanako Plana prestatzen da. Irakasle talde bat arduratzen da gela honetaz: pedagogia terapeutikako irakasleak, eta tailer-maisuak. Plangintza hau ondoko esparru hauetan oinarrituta dago: Eguneroko bizitzarako trebeziak (autonomia, irakurketa, idazmena, matematika, gizarte trebetasunak, kontsumo tailerra, informatika tailerra); lan mundurako prestakuntza, eta tailerrak: sukaldaritza, jostura, marketeria, marrazketa. Ikasleek praktikak egiten dituzte lan inguru errealean azkeneko urtean. Hezkuntza Laguntzako Espezialistak ditugu ikasle batzuentzat, haien beharren arabera laguntza eskaintzeko.

D.- Curriculum Anitzeko Programa.

Programa hau bi urtetan zehar garatzen da: DBH 3 eta DBH 4 mailetan. Baldintzak betetzen dituzten ikasleentzat urte beteko programa eskaini daiteke, DBH4an. Emaitza akademiko onak lortzen ez dituzten 15-16 urteko ikasleentzat sortutako programa da. Helburu nagusiak, titulua ateratzeaz gain, hiru izango lirateke: oinarrizko gaitasunak sendotzea (lan-ohiturak, adierazpena, erantzukizuna, kidesuna, iritzi propioa, jakin-mina, kemena, adorea, esku-trebetasuna); ezagupen orokorrak sendotzea, lanbide heziketarako bideak irekitzea. Ikasgaiak bi esparrutan biltzen dira (gizarte-hizkuntza eta zientzia-teknologia), bi irakasle espezializatuak eramaten dituztenak, eta aldi berean taldearen tutoreak direnak. Banakako tutoretzan eta gurasoen harremanetan indar berezia jartzen da.

E.- Arreta berezia behar duten ikasleek.

Heziketa mailan aparteko neurriak hartu behar direnean Hezkuntza Sailak iradokitako aholkuak jarraitzen dira.

F.- Hizkuntza indartze programa (HIPI).

Programa hau gure hezkuntza sistemara eta gure hizkuntzetara (euskara edota gaztelania) etorri berriak diren ikasleentzat da. Hizkuntza(k) ikastea eta dagokien mailan integratu ahal izatea da helburua, eta irakasle espezialista batek propio lagunduko die.

G.- Tutoretza pertsonalizatuak.

Ikasle batzuen beharrei erantzuna emateko asmoz, tutoretza eta laguntza pertsonalizatuak antolatzen ditugu.

9. JARDUERA OSAGARRIAK

Egungo egoera epidemiologikoa kontuan hartuta, jarduera osagarri gutxiago izango ditugu, nahiz eta jakin ikastetxeko zutabe garrantzitsu bat direla.

Zuzendaritzak koordinatzen dituen prebentzio ekintzak egingo dira: droga-mendekotasuna, alkoholaren kontsumoa, sare sozialen erabilpena, sexu heziketa, sexu indarkeria, homofobia, bizkarrezur-muineko lesioak, ludopatia

Aurten Departamentu Didaktikoek antolatzen dituzten jarduerak TALDE TXIKITAN eta Donostiako eremuan izan beharko dute. Beraz, oso jarduera gutxi egingo dira eta beti zuzendaritza eta departamentuen arteko adostasun bat eta gero.

Printzipioz, Jolas- garaietan egiten ziren zenbait ekintza ere; hala nola, San Sebastian eguneko “Danborraren zozketa”, “Ezti dastaketa” eta beste jarduera batzuk oraingoz bertan behera geratu dira eta beste mota batzuetako jarduerak egingo dira, baldin eta pandemiaren egoerak uzten duen neurrian.

Azkenik, DBH 4. eta Batxillerreko 2.mailakoen ikas bidaien inguruan zera aipatuko dugu: bidaien antolakuntzan eta bidaietan bertan ikastetxeak parte zuzena hartzen ez badu ere, bidaien antolaketaren ardura hartzen dutenei ikastetxeak laguntza eskaintzen diela. Hau da, dirua biltzeko sortzen diren hainbat ekintzen berri emango zaie eta helburu horrekin ere, ikastetxean bertan egin daitezkeen ekintzak antolatzen lagunduko zaie (Taldeetako argazkiak, kamisetak, aterkiak etab.). Aurten COVID dela eta ez dakigu egiterik egongo den.



10. IKASTETXEAREN AZPIEGITURAK ETA BALIABIDEAK

BERARIAZKO GELAK ETA LABORATEGIAK:

Informatika gelak -----	4
Teknologia gelak -----	3
Laborategiak:	
Fisika -----	2
Biologia-Geologia -----	1
Kimika -----	1
Plastika gelak -----	3
Musika gela -----	1
Bikoizketa gelak -----	7
Gela digitala -----	1
Hizkuntza gela -----	1
Marrazketa gela -----	1
Erabilera anitzeko gela -----	1
Arbela digitalak gela guztietan.	
Gimnasioa eta kirol anitzetako patioa	
Liburutegia eta Jangela	



LIBURUTEGIA:



Ikas-estrategien bitartez, IKASTEKO eta IRAKURTZEKO lekua.
“Irakurtzen eta Ikasten, Irakurri eta Ikasi”

Gure liburutegiak eskola-dinamikarekin bat datorren baliabide garrantzitsua izan nahi du, ikaskuntza-ikasbideari eusten dion topagune kulturala eta sortzailea.

NOIZ ERABILI DAITEKE?

- Egunero **jolas-orduetan**.

EKINTZA OSAGARRIAK LIBURUTEGIAREKIN LOTUTA:

- Ikastetxeko liburutegi mailegu zerbitzua
- Irakurmena sustatzeko programa : irakurketa binaka, hizketaldiak, ...
- **Idazleak gurera:** idazleen liburuekin
- Irakurlearen txokoa eta iradokizunak
- **Ipuin-lehiaketa** eleanitza eta **Irudi-testu lehiaketa**. Sormen tailerrak.
- Ekintza Osagarriak: *Erakusketak, hitzaldiak, entzunaldiak, ...*

Oharra: egoerak uzten duen neurrian gauzatuko dira.



JANGELA

Antigua Luberri BHIk jangela zerbitzua du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat eskaintzen da.

Ausolan enpresa arduratzen da janaria prestatu, bertaratzeaz eta jan ondorengo zaintza ziurtatzeko begiraleak eskaintzeaz.

Txanda bakarrean ematen zaie jaten ikasleei.

Zerbitzu honen kudeaketa zuzenean egiten da institutuan, eta arduradun bat dago horretarako.



DBHko ikasleei ikasturteko lehen egunean jangelako funtzionamenduaren punturik garrantzitsuenak aipatu zitzaizkien: 1) puntualtasunaren garrantzia 2) mahaien inguruan kontuz ibili beharra eta pasilloan ere bai; 3) bakoitzak bere eserleku propioa izango duela ikasturte osorako; 4) mahai gainean dauden gauzak jaso beharrekoak; 5) **etorri ezinean gertatzen direnei telefonoz edo Inikaz edota posta elektronikoz aurrez jakinaraztea** eskatzen zaiela hartara janari gutxiago eskatzeko; eta 7) denon laguntza eta errespetua ezinbestekoak direla gure jangelan.

Arduraduna: Unai Munduate (jangela@antigua-luberri.net)



11. GURASO ELKARTEA / KIROLA ETA KULTUR EKINTZAK

LUBERRI BOSTAK GURASO ELKARTEA

Jakintza, Ibai, Amasorrain, Igeldo eta Orixe ikastoletako gurasoak 1996ko irailaren 12an "Antigua-Luberri Bostak Guraso Elkarte" eratu zuten, Antigua-Luberri BHI institutuari bere helburuak betetzen laguntzeko eta bertan hartzen diren erabakietan parte hartzeko asmoz.

HELBURUAK

- Ikastordu ondorengo erakunde, zerbitzu eta ekintza osagarrien sorrera bultzatzea, ikasleen posibilitateak bideratuak izan daitezen.
- Erakunde eta agintariengandik interesgarritzat jotzen diren mota guztietako laguntzak biltzea.
- Ikastolaren eraginkortasuna eta zerbitzua hobea izan dadin guraso eta ikasleen aldetik izan daitezkeen ekimen eta iradokizun bideratzea.
- Guraso edota tutoreen prestakuntzan laguntzea.

ZER ANTOLATZEN DUGU?

Helburu horiek lortzeko batzorde hauetan hartzen dugu parte:

- Elkarbizitza Behatokia: zuzendaritza eta ikasleekin batera.
- Eskola Kontseilua. Ikastolaren ordezkarietarako organo goren.
- Liburutruk: kurtso desberdinetako liburuen trukea.
- Batx. 1. mailako "lehen sorospen" ikastaroa antolatzea.
- Ikasleentzako ikastaroak: kitarra, antzerkia eta mekanografia.
- Gurasoentzako ikastaroak: frantsesa eta euskal dantza.
- Kirol batzordea.
- Batzorde juridiko eta ekonomikoa.
- 4DBHko ikasbidaiaren antolaketa.
- 2BATXeko ikasbidaiaren antolaketa.



GURASO ELKARTEKO URTEKO KUOTA

Familia bakoitzeko 80€ kobratzen dira, bi txandatan.

Kuota zertarako erabiltzen dugu?

Guraso elkarteak kurtsoan zehar egiten diren irteera bakoitzeko ikasle bakoitzarentzat, diru ekarpen bat egiten du ekintzaren gastuak murrizteko asmoz. Kuota hori ere, guraso elkarteko beste ekintzak ordaintzeko erabiltzen da eta noski, eskola kirolaren antolakuntzan ere.

PARTE HARTU

Aipatutakoak aurrera eramateko, guraso bolondresa izan nahi baduzu? edo edozein ekintzetan laguntzeko prest bazaude? Ongi etorriak izango zarete!

Luberriko edo elkarteko edozein arduradunarekin harremanetan jarri edota posta elektronikoko bat bidali helbide honetara

luberrigurasoak@gmail.com


KIROLA ETA KULTUR EKINTZAK

“Jarduera fisikoa eta kirola: bizitza aktibo bat gizarte osasuntsu batentzat!”

Kirolaren esparrua Antigua-Luberri BHI institutuko Bostak Guraso Elkarteak eskaintzen dituen betekizunen eta jardueren artean kokatzen da. Honela, kirola promozionatzea du helburu nagusizat, bai txapelketa kirolaren bitartez, kirol nagusienetan, eta bai kirol minoritarioak hastapenen bidez ezagutzera emanez eta promozionatuz.

Antigua-Luberri Kirol Elkartearen bitartez, institutuko ikasle guztiei aukera ematen zaie futbola, saskibaloia eta gimnasia erritmikako taldeetan parte hartzeko, edo/eta, “Abentura kirola” jardueraren bidez, urpeko jarduerak, bela, surfa, hipika, arku jaurtiketa, bilarra, karting, arrantza... ikastaroak egiteko eta ezagutzeko.

Arduraduna: Lander Bello



luberrikirola@gmail.com



[628 498 679](tel:628498679)



www.luberrikirola.com



[@luberrikirola](https://twitter.com/luberrikirola)

2021-2022ko egutegia - DBH/ZIG

klase-egunak: 175

Lehen eguna: iraila 8

Azken eguna: ekaina 21

IRAILA							17
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30				

URRIA							19
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
				1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	31	

AZAROA							21
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
1	2	3	4	5	6	7	
8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	
22	23	24	25	26	27	28	
29	30						

ABENDUA							14
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30	31			

URTARRILA							15
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
					1	2	
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	
31							



OTSAILA							19
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28							




MARTXOA							22
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30	31			

APIRILA							11
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
				1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		

MAIATZA							22
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

EKAINA							15
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig	
		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30				

 Aurrebaluazio saioak
 Azterketa egunak: 1, 2, 3 ebal.

 Ebaluazio saioak
 Noten buletinen banak
 Jai-egunak.

 Irailaren 20tik 24ra. Aurreko ikasturteetako ikasgaiak gainditzeko lehenengo deialdia.

 Ohiko eta ezohiko azterketak

Ohiko azterketak: ekainaren 7tik ekainaren 13 bitarte (biak barne). Noten banaketa, ekainaren 17an 12:00etan. Erreklamazioak, ekainaren 17tik (12:00etatik), ekainaren 21a arte (12:00ak arte).

Ekainaren 21a: irteerak/txangoak

Ezohiko azterketak: ekainaren 22-23-24. Noten banaketa, ekainaren 28an (13:00etan). Erreklamazioak, ekainaren 28tik (>13:00) 30ra (13:00ak arte)

2021-2022ko egutegia - BATXILERGOA 1

Lehen eguna: iratze 8

IRAILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

URRIA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

AZAROA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

ABENDUA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

URTARRILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						



OTSAILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					




MARTXOA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

APIRILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

MAIATZA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

EKAINA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

 Aurre-ebaluazio saioak
 Azterketa egunak

 Jai-egunak.
 Ebaluazio saioak
 Noten buletin banaketa

 **BATX 1eko EZOHIKOak prestatzeko klaseak, maiatzaren 30etik ekainaren 10era arte.**

 **Ohiko eta ezohiko azterketak**

Ohiko azterketak: maiatzaren 19-20-23-24.

Noten banaketa maiatzaren 27an 10:00etan; erreklamazioak: maiatzaren 27tik (10:00etatik) maiatzaren 31a arte (goizeko 10:00ak arte. 48 ordu).

Ezohiko azterketak: ekainaren 13-14-15. Nota banaketa, ekainaren 17an 10:00etan. Erreklamazioak, ekainaren 17tik (>10:00) 21era (10:00ak arte; 48 ordu)

2021-2022ko egutegia - BATXILERGOA 2

Lehen eguna: irailak 8

IRAILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

URRIA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

AZAROA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

ABENDUA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

URTARRILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

OTSAILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						

MARTXOA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

APIRILA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	


MAIATZA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

EKAINA						
Al	AS	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

 Aurre-ebaluazio saioak


 Azterketa egunak

 Selektibitatea. Ekainak 8-9-10

 Jai-egunak.

 Ebaluazio saioak

 Noten buletinen banaketa

 **BATX 2ko EZOHIKOak prestatzeko klaseak**, maiatzaren 23tik ekainaren 10ra arte. **Selektibitatea prestatzeko klaseak** ekainaren 6an amaituko dira.

 Irailaren 20tik 24ra. Aurreko ikasturteetako ikasgaiak gainditzeko lehenengo deialdia.

 **Ohiko eta ezohiko azterketak**

Ohiko azterketak: maiatzaren 12-13-16-17.

Noten banaketa BATX2: maiatzaren 20ean 10:00etan; erreklamazioak: maiatzaren 20tik (10:00etatik) maiatzaren 24ra (goizeko 10:00ak arte. 48 ordu). 27An DIPLOMA BANAKETA (14:30)

Ezohiko azterketak: ekainaren 13-14-15. Nota banaketa, ekainaren 17an 10:00etan. Erreklamazioak, ekainaren 17tik (>10:00) 21ra (10:00ak arte; 48 ordu)

13. IKASTETXEKO HELBIDE ETA DATUAK / IKASTETXEAREKIN HARREMANAK BIDERATZEKO

ANTIGUA-LUBERRI BHI
<https://www.antigua-luberri.net/>

HELBIDEA: XALBADOR BERTSOLARIA, 9 20018 DONOSTIA
Tlf. zkia.: **943 899304** (ikastetxearekin harremanetan jartzeko).

E-MAILA OROKORRA: 013085aa@hezkuntza.net
IDAZKARITZA: idazkaritza@antigua-luberri.net

IFZ: S 4833001 C

KK (Funtzionamendua) 2095 0611 00 1061913322
KK (Jangela) 2095 0611 00 1062602767

Mesedez, ordainketak egiterakoan ikaslearen izena eta bi abizen jarri

1.- Familia- Tutore:

- Familiak beharra ikusten duen orotan jarri ahal izango da harremanetan tutorearekin. Harremanetarako, INIKA erabili dezakezue, edota telefonoz ikastetxera deitu.
- Tutoreak ere, behar den kasuetan, familiarekin Harremanduko da.

2.- Familia- arloko irakaslearekin:

Familiak arlo bateko irakasle jakin batekin hitz egin nahiko balu, **lehenik tutoreari** adieraziko lioke nahi hori, eta tutoreak bideratuko luke irakasle eta familiaren arteko harremana.

Aipatutako prozedura da ohikoa eta ikastetxetik bultzatu nahi duguna, hala ere, familia batek zuzendaritzarekin edo beste gobernu organoren batekin harreman zuzena nahiko balu, bere ustetan tratatu beharreko gaiak hala eskatzen duelako, gogorarazten dugu eskubide osoa duela. Ikastetxearekin hitzordua adostu ondoren beharrezko bilerak egingo dira.

3.- Hutsegiteak justifikatzearen garrantzia:

Gogorazi nahi dizuegu, oso garrantzitsua dela **garaiz eta dagokion garaian** hutsegiteen justifikatzeak ekartzea (uztaileko gutunean azaltzen den moduan).

Bestalde Barne Araudiaren 3.11 atalean agertzen den moduan, justifikatu gabeko berandu etortzea, justifikatu gabeko hutsegite bezala kontsideratuko dela gogorazi nahi da.

• Hutsegiteak eta azterketak. Ikasle batek azterketa batean huts egiten badu:


- a) Gaixorik dagoelako bada, prozedurak honela dio: goizeko 8etan, gurasoek deitu egin behar dute gaixorik dagoela esateko (edo INIKAz komunikatu tutoreari), eta horretaz aparte, betiko justifikantea ekarri. Kasu honetan, ikasleari azterketa hori noiz egingo zaion, mintegi bakoitzak adieraziko dio, berarentzako lehen deialdia izanik. Beraz, azterketa hori gaindituko ez balu, beste bat egiteko eskubidea izango luke.
 - b) Familiak goizeko lehen orduan, ikaslea gaixorik dagoela komunikatzen ez badu, ikasleari ez zaio azterketa egiteko beste aukera bat emango, eta beraz, aukera galduko du.
- Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitetzat: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak institutuko idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak. Beraz, **Justifikatu gabeko berandu etortzea, justifikatu gabeko hutsegite bezala kontsideratuko da.**

14. COVID-19aren inguruko jarraibide nagusiak

MASKARAREN ERABILPENA

Maskara ikastetxeko eremu guztietan erabiltzea nahitaezkoa da (salbuespena: hamaiketako jaterakoan lagunengandik aldentuz gero).

Hala ere, eraikuntza barruan jatea debekatua dago.



ESERLEKUAK

Egunero banaka eta toki berdinean eseriko zara.



GARBIKETA

Oso garrantzitsua da eskuak gel hidroalkoholikoarekin maiz garbitzea eta gelaz aldatzerakoan mahaia eta aulkia desinfektatzea.



JOLAS-GARAIAK

Patioan maila bakoitzari eremu bat egokitu zaio; errespetatu dezagun.

SEGURTASUN TARTEA MANTENDU

Segurtasun tartea errespetatu eta pilaketak ekiditu.



COVID-19a

Covid-19arekin bateragarria den edozein sintoma izanez gero, etxean geratu eta INIKArekin bitartez mezu bat bidali tutoreari eta Covid-19aren arduradunari (Andoni Markiegi).

